

Euskararen egoera lan munduan: hurbilpenerako datuak

Josean Urdangarin

Hizkuntza baten berrindartze prozesuak, hiztunherri horren ahalegin eta energiak egoki eta erregulariki ezartzea eskatzen du, belaunaldien artean ondo koordinatuz, besteak beste. Euskararen kasuan, betetzen dituen eta ez dituen funtzioak sakon aztertu edo berraztertu beharra dago, eskura dauden datu eta aplikazio guztiak kontutan hartuz. Helburu hori lortzearren, lan mundua eta euskararen arteko uztarketa aztertzen da artikulu honetan, maila bi aipatuz; batetik, lan munduak duen garrantzia hizkuntza normalkuntza prozesuan, eta bestetik Euskal Autonomia Elkarteak, Nafarroa eta Iparraldeko lan munduko datuen aurreneko balorazioa: datu soziodemografikoak, hizkuntza gaitasuna, hizkuntza harremanen sarea, erabilera lan giroan, giro formaletan eta interes zein jarreraren araberako tipologiari so eginez. Gerora datu eta esplotazio zehatzagoak etorriko dira, baina azpimarratu daiteke eskualderik euskaldunenetan euskarazko edo gehienbat euskarazko lan inguruneak sortze edo berrindartzeko aukerak badaudela, eta hortik abiarazten direla lehentasunak.

The reinforcing process of a language means consistent establishment of the appropriate efforts and dedication of its speakers; this is, for instance, good coordination among generations. Regarding the Basque language, we should analyse or reconsider all data we have at hand to see which functions are, or are not, already met. The purpose of the present article is to discuss the links between the Basque language and the working environment. Two reference points are taken into consideration: one, the importance of the relationships at work in a language normalization process and, two, the assessment of some facts - such as, socio-demographic data, language proficiency, network of the linguistic relations, usage of the language at work and in formal situations, typology according to interests and attitudes - related to the working world in the Basque Autonomous Community, Nafarroa and the French-Basque regions. More detailed data and applications are to come, but I would like to underline the fact that there are clear options to reinforce and conceive working Basque speaking spheres in the Basque speaking areas or where Basque is mainly spoken. And this is where priorities are placed.

«Iraultza industrialaren aurreko lan harremanetan euskarak presentzia nabarmena zuen, eta ez bakarrik nekazaritza eta arrantzan, baita beste zereginetan ere, hala nola burdinoletan, zuraren lanketan, ehungintzan, artisautzan eta abar»

«Fishman-ek lan munduari garaia baino lehen heltzearen arriskua ere aipatzen du, irakaskuntzan egindako ahaleginekin batera aurrera eroan beharra azpimarratuz»

Sarrera

Artikulu honen baitan gai bi azpimarratzen dira nagusiki, lan munduak duen garrantzia hizkuntza normalkuntza prozesuan, alde batetik, eta 1991ko soziolinguistikazko inkestan agertzen diren lan munduari buruzko datuen aurrean azterketa, bestetik.

1. Lan munduaren eragina hizkuntza plangintzan.

Lan munduari buruz dihardugunean, oso arlo zabalari buruz ari gara, lan iharduera desberdinen konplexutasunaren arabera. Iraultza industrialaren aurreko lan harremanetan euskarak presentzia nabarmena zuen, eta ez bakarrik nekazaritza eta arrantzan, baita beste zereginetan ere, hala nola burdinoletan, zuraren lanketan, ehungintzan, artisautzan eta abar¹. Ondoren gertatutako aldaketa bortitzen ondorioz, esan genezake egungo lan mundua urrun dagoela oraindik euskaratik, eta ez dela normalkuntza prozesurik burutuko eremu hau euskararentzat berreskuratu gabe².

Hizkuntza baten normalkuntza prozesuak eskatzen du, besteak beste, hizkuntza horrek bete ditzakeen funtzioei buruzko predikzio fidagarriak egitea, oinarri empiriko baliagarriak kontutan hartuz³. Euskarari dagokionez, Euskal Autonomi Elkartearen, ahaleginik nabarmenenak irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazio mailan gauzatu dira, gehienbat, orainarte. Lan munduan zelan eman behar zaie segida ahalegin hauei? Zelan uztartu beste eremuetan orainarte egindakoaz?

Galdera hauek hizkuntza plangintzaren alorrera garamatzate zuzen zuzenean.

J. Fishman-ek, bere *Reversing Language Shift* (1991) liburuan zortzi urratsetan banatutako GIDS eskala ("Graded Intergenerational Disruption Escala" edo "Belaunez-belaunez")

(1) Euskararen Aholku Batzordea (1992), *Lan mundua eta euskara. Hizkuntza normalkuntzarako bideak*. (argitaratzeke)

(2) Euskararen Aholku Batzordea (1993), *Euskararen Politikarako Oinarritzko Irizpideak*. Aholku Bilduma-5. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz.

(3) Covarrubias, J. (1988), "Normalización y Planificación Lingüística en el País Vasco". In *II. Euskal Mundu Biltzara. Hizkuntza eta Gizartea*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz.

ko Ezlokatze Eskala Mailakatua") darabil bere eredu kontzeptuala aurkezteko⁴. Zelai kontzeptual honetan zortzigarrenetik bostgarren urratsera doan fasea, fase ahula, diglosia egonkorra lortzera doa, eta ondoren fase indartsura jotzen da, hau da, diglosia egonkor hori gainditzea laugarrenetik lehen urratsera abiatuz

HIZKUNTZA BIZIBERRITZEKO SAIOAK: 8 URRATS
BELAUNEZ BELAUNEN EZLOKATZE MAILA
(Behetik gora irakurri)

1.- Hezkuntza, lan eremu, komunikabide eta gobernu ekintzak mailarik gorenean
2.- Herri mailako zerbitzu publikoak, gobernu zerbitzuak eta komunikabideak

3.- Herri/eskualde mailako lan mundua (ez auzo girokoa)

4.- Irakaskuntza:
4.b: "X"dunentzat eskola publikoa, baina diseinua eta pertsonala "Y"dunen kontrolpean
4.a: "X"dunen kontrolpeko eskolak

II. Diglosia gainditzeko hizkuntza biziberritzeko saioak, diglosia hori lortu ondoren

5.- Hizkuntzaren alfabetakuntzarako eskolak, gazte eta zaharrentzat
6.- Etxegiroa, auzo-ingurua eta bizi esparru amankomunak (Gertuko komunitatea): Ama-hizkuntzaren transmisioaren oinarria
7.- Elkarreragin kulturala "X" hizkuntzaren bidez, pertsona zahar eta helduen parte hartzea azpimarratuz
8.- "X" hizkuntzaren berreraikuntza

I ; Diglosia lortzeko hizkuntza biziberritzeko saioak

Eredu honek bere seigarren urratsa hartzen du oinarritzat, hau da, etxegiroa, auzoinguru eta bizi esparru amankomunenak: *ama hizkuntzaren transmisioaren oinarria*. Beste urrats guztietan egiten diren ahaleginak urrats honen indartzearekin lotzen dira. Hori lortu ondoren beste ahalegin orok aberastu eta alaitu egingo dute hizkuntza

(4), (5) Fishman, J.A. (1991), *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Multilingual Matters 76, Clevedon.

«*Industria eta zerbitzuetan %18ak du euskara lehen hizkuntzatzat, administrazioa lau puntu azpitik agertuz, %14ak*»

hori, baina ezingo dute ordezkatu edo orekatu urrats horretan gertatutako hutsunea edo ahulezia.

Fishman-ek hirugarren urratsean ezartzen du herri/eskualde mailako lan mundua, bizimodu sozialean bete betean eragina duen eremua, gehienbat testuinguru modernoetan. Interesgarri bezain beharrezkotzat jotzen du X hizkuntzaren -euskararen- ibilbidea oinarri ekonomiko batean eraikitzea, faktore hau hizkuntza horren botere demografiko eta politikoaz koordinatuz.

Arriskuak eta zailtasunak ere nabariak dira: teknologia, produktu eta zerbitzuen aldaketa azkarrak, multinazionalen politikak, familiaren eremuarekiko urruntasuna eta abar. Ere-mu honi garaia baino lehen heltzearen arriskua ere aipatzen du, irakaskuntzan egindako ahaleginekin batera aurrera eroan beharra azpimarratuz. Bostgarren urratsetik aurrera ez dago "dena irabazte"ko egoerarik, hala ere harrapatu beharreko eremutat du lan munduaren hau, (beti ere etxegiroarekiko eragina neurtuz), are gehiago kultur autonomia osoa lortu nahi denean⁵.

Gai honi buruz luzatu diren autoreen artean aipa daitezke, besteak beste, J.M. Sanchez Carrión⁶, P.E. Laporte⁷, R.Bourhis⁸, P. Bouchard⁹ eta W.F.Mackey¹⁰.

Euskara lan mundu honetan sartze eta indartzearen kontua oso zehatz aztertu beharra dagoenez, gatozen datuei begiradaxoa ematera.

2. Lan mundua: 1991ko inkestaren aurren emaitzak

«*Azpimarratzekoa da elebidun funtzional gehienak zerbitzuetan daudela (%23a) eta administrazioan euskal elebidun funtzionalak soilik %2a direla eta elebidun hartzaileak %9a*»

(6) Sanchez Carrión, J.M. "Txepetx" (1987), *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskera y teoría social de las Lenguas*. Gráficas Lizarra, Estella.

(7) Laporte, P.E. (1993), "Lan mundua da hizkuntza normalkuntzaren giltzarria". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 9. zk. 1993ko apirila, Donostia.

(8) Bourhis, R. (Ed.), (1984), "Language policies in multilingual Settings". In *Conflict and Language Planning in Québec*. Multilingual Matters 5, Clevedon.

(9) Bouchard, P. (1991), *Les enjeux de la francisation des entreprises au Québec (1977-1984)*. Langues et Sociétés. Office de la Langue Française, Québec.

(10) Mackey, W.F. (1988), "L'ecologie linguistique des sociétés experimentales". In *II. Euskal Mundu Biltzara. Hizkuntza eta Gizartea*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz.

1991ean Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak, lehen aldiz, Euskal Herri osoa barne hartzen zuen 16 urtetik gorako biztanleriari buruzko soziolinguistikazko inkesta egin zuen. Inkestak euskara eta erdaren (gaztelania edota frantse-saren) ezagutzaz gain, euskararen erabilera eta egungo hizkuntza egoerari buruzko biztanleriaren jarrera aztertzea du helburu, azterketarako ikuspegi desberdinak hautatuz, hala nola: soziodemografikoa, geografikoa, hizkuntza gaitasuna, jatorria eta kultur nortasunarena. Guztira 5.017 elkarriketa egin ziren Euskal Herrian: 2.800 Euskal Autonomi Elkarteetan, 917 Iparraldean eta 1300 Nafarroan¹¹.

Datu multzo honetarik lan munduari buruzko oinarritzkoen komentarioa dator ondoren, orden honetan: datu soziodemografikoak, hizkuntza gaitasuna, harreman sarea, lan giroko erabilera, eta jarrera eta interesa azkenik.

2.1. Datu soziodemografikoak

2.1.1. Orokorrak

Inkestaren arabera guztira 16 urtetik gorako 2.257.000¹² bizi da Euskal Herrian: %74a Euskal Autonomi Elkarteetan, %18a Nafarroan eta %9a Iparraldean. Adinari dagokionez, Nafarroa eta Iparraldeko biztanleria Euskal Autonomi Elkartekoa baino zertxobait zaharragoa da (16tik 24 urte bitarteko adin taldean Iparraldean %9a, Nafarroan %16a eta Euskal Autonomi Elkarteetan %21a dagoen bitartean, 64 urtetik gorako adin taldean %22a dira Iparraldean, %20a Nafarroan eta %12a Euskal Autonomi Elkarteetan).

Jatorriari dagokionez, Euskal Herriko biztanleriaren erdia baino gehiago (%53a) bertan jaioa eta gurasoak bertakoak dituen da. Etorkinak ia herena dira (%29a), eta besteak bertakoak dira, gurasoetariko bat (%7a) edo biak (%11a) etorkinak izanik. Nafarroa da inmigrazioerik txikiena jasan duen lurraldea, (etorkinak %16a dira, eta etorkinen seme-alabak %15a), eta Euskal Autonomi Elkar-teak jasan du inmigrazioerik altuena (etorkinak %32a dira eta etorkinen seme-alabak %21a).

«Euskaldunen artetik erdaraz errazago egiten dutenak %57a dira administrazioan eta %48a zerbitzuetan; aldiz, industrian euskaraz errazago egiten dutenak %35a dira»

«Euskara batuan ez dutenak hitz egiten %65a dira; industrian %69a dira %47a zerbitzuetan eta administrazioan %32a. Horietatik, euskara batuan errazago egiten dutenak oso lerro argia markatzen dute, administrazioan %34, zerbitzuetan %19 eta industrian %5a»

(11) ikus: X. AIZPURUA, "Euskal Autonomi Elkarteko egoera soziolinguistikoaren azalpen orokorra", *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 7/8 zbk. 101-102 o., Donostia, 1992ko iraila.

(12) 1986ko errolda oinarritzat hartuz.

EUSKARAREN EGOERA LAN MUNDUAN: HURBILPENERAKO DATUAK

2.1.2. Lan esparruaren ikuspegitik (ikus I. taula)

Lan esparrua eta sexuaren arabera, emakumeen presentzia askoz ere altuagoa da zerbitzuetan eta administrazioan (%51a) industrian (%16a) baino. Gero eta emakume gehiago ari da lan merkatura sartzen, eta bereziki aipatu esparru bietan.

Adinaren arabera hartuta, zerbitzu sektorean dihardutenak gazteagoak dira, hain zuzen ere %56a dira 35 urtetik beherakoak. Aldiz, biztanleriarik zaharrena industriari dagokio, %65a izanez 35 urtetik gorakoa, eta ondoren administrazioa, %58az.

Jatorriari begiratu, zerbitzu sektorean metatzen da bertakoen portzentaiarik altuena (%59a), eta baita ere bertakoena baina aita edo ama etorkina izanik (%9). Bestalde, etorkinen portzentaiarik handiena industria sektorean kokatzen da, %35az.

Ikasketen arabera, oinarrizko ikasketak dituztenak dira gehienagoa, %43a. Industria sektorean oinarrizko ikasketak edo baxuagoak dituztenak %59a dira, administrazioan azalduz erdi goi-mailako eta goi-mailako ikasketadunen portzentaiarik altuena, %46a hain zuzen ere.

(Bere kontura lan egiten dutenei buruz datu positiboak agertzen dira, baina hauek

I. Taula
Datu Soziodemografikoak
(Euskal Herria)

91ko urtea

	GUZT	LAN ESPARRUA				
		EZ DU LANIK	BERE KONTU	INDUSTR.	ZERBITZ.	ADMINIS.
GUZT	100	100	100	100	100	100
SEXUA						
Gizonezkoa	49	36	66	84	49	49
Emakumezkoa	51	64	34	16	51	51
ADINA						
16tik 24ra	19	25	6	12	18	6
25etik 34ra	19	11	22	23	38	36
35etik 49ra	24	14	37	38	32	40
50etik 64ra	23	24	32	27	12	18
64tik gora	15	26	3		1	
JATORRIAK						
Bertakoa	53	52	61	47	59	52
Bertakoa, ama ala aita etorkina	7	8	8	6	9	5
Bertakoa, ama eta aita etorkinak	11	10	6	13	14	12
Etorkina	29	30	25	35	18	31

eta langabezian daudenak ez ditugu oraingoz aztertuko).

2.2. Hizkuntza gaitasuna (ikus II. taula)

Hautzaroko lehen hizkuntzari dagokionez, industria eta zerbitzuetan %18ak du euskara lehen hizkuntzatzat, administrazioa lau puntu azpitik agertuz, %14ak. Aldi berean, erdara lehen hizkuntzatzat dutenak %81erarte doaz administrazioan.

Elebitasun-motaren arabera, esan daiteke erdaldun elebakarrak direla nagusi Euskal Herri osoan, %70a. Euskaldun elebakarrak %1a, elebidun funtzionalak %21a eta elebidun hartzaileak %8a dira. Azpimarratzekoa da elebidun funtzional gehienak zerbitzuetan daudela (%23a) eta administrazioan euskal elebidun funtzionalak soilik %2a direla eta elebidun hartzaileak %9a. Administrazioarekin euskaldunak euskaraz egiteko bidea eman dezake elebidun hartzaileen %9 honek, zonalde ez euskaldunetan bereziki.

Erraztasunari dagokionez, (euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiten dutenak kontuan hartuta), erdaraz errazago egiten dutenak %38a dira (erdal elebidun funtzionalak); euskaraz zein erdaraz berdin egiten dutenak %28a (elebidun funtzional orekatuak) eta euskaraz errazago egiten dutenak %35a (euskal elebidun funtzionalak). Oso kontuan izan beharreko populazio estratoa dugu hemen, erabilera-eremu ezberdinetan izango duen eraginagatik.

Erdaraz errazago egiten dutenak %57a dira administrazioan eta %48a zerbitzuetan; aldiz, industrian euskaraz errazago egiten dutenak %35a dira.

Euskara batuan ez dutenak hitz egiten %65a dira, norbere herriko euskaran errazago egiten dutenak %18a, eta euskara batuan errazago egiten dutenak %12a. Euskara batuan hitz egiten ez dutenei begiraturaz, industrian %69a dira, %47a zerbitzuetan eta administrazioan %32a. Aldi berean, euskara batuan errazago egiten dutenak oso lerro argia markatzen dute, administrazioan %34, zerbitzuetan %19 eta industrian %5a.

Euskal Herrian asko dira eskola edo ikastolatik kanpo euskara ikasi edo hobetzeko ahaleginak egin dituztenak, %22a. Portzentaia hori oraindik ere altuagoa da 25-34 urteko adin taldean, herenetik gora goz, %35a. Lan esparru

«Azpimarratzekoa da, administrazioan, euskaraz denek edo ia denek jakinik, %23ak beti erdaraz edo erdaraz euskaraz baino gehiago egiten duela»

«Udaletxeetako bulegoetan beti euskaraz edo euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dutenak %54a dira EAEan, Nafarroan %37a eta Iparraldean %20a. Beti erdaraz egiten dutenak %60ra heltzen dira Iparraldean»

EUSKARAREN EGOERA LAN MUNDUAN: HURBILPENERAKO DATUAK

II. Taula
Hizkuntza-Gaitasuna-2
(Euskal Herria)

91ko urtea

	GUZT	LAN ESPARRUA				
		EZ DU LANIK	BERE KONTU.	INDUSTR.	ZERBITZ.	ADMINIS.
GUZT	100	100	100	100	100	100
ZEIN IZAN ZEN ZURE LEHEN HIZKUNTZA HAURTZAROAN?						
Euskara	20	20	26	18	18	14
Euskara eta erdara	3	2	4	3	3	4
Erdara	75	75	66	76	78	81
Besterik	2	3	4	2	1	1
ELEBITASUN MOTA:						
Euskaldun elebakarra	1	1	2	0	0	
Euskal elebidun funtzionala	7	7	8	7	5	2
Elebidun funtzional orekatua	6	6	8	5	7	6
Erdal elebidun funtzionala	8	7	11	8	11	11
Elebidun hartzailea	8	8	6	6	8	9
Erdaldun elebakarra	70	69	65	73	70	72

	GUZT	LAN ESPARRUA (EUSKALDUNAK)				
		EZ DU LANIK	BERE KONTU.	INDUSTR.	ZERBITZ.	ADMINIS.
GUZT	100	100	100	100	100	100
NOLA HITZEGITEN DUZU ERRAZAGO OROHAR ?						
Erdaraz errazago	38	33	37	39	48	57
berdin euskaraz eta erdaraz	28	27	28	26	31	31
euskaraz errazago	35	40	35	35	21	12

hartuta, eskola edo ikastolatik kanpo ikasi dutenak %15a dira industrian, %32a zerbitzuetan eta %35a administrazioan.

2.3. Norberaren hizkuntza-harreman sarea

Egiturari dagozkion faktoreen artean, norbere hurbileko harreman-sareak eta gune soziolinguistikoak eragiten dute euskararen erabileran. Berez, gune soziolinguistikoak norbere harreman-sarean eragiten du, baina sare hori norberak eratu edo aldatzen du hein batean behintzat.

Euskal Herri mailan, biztanleria osoa eremuka kontutan hartuta, euskaraz denek edo ia denek dakitenen portzentaia familian %15ekoa da, lagunartean %13 eta lankideen artean %11koa. Aldiz, euskaldunak soilik hartuta, familian %68a, lagunartean %48a eta lankideen artean %36a dira denek edo ia denek euskaraz dakitenak.

Biztanleria osoa kontutan hartuta, lankideen artean, euskaraz denek edo ia denek dakitenak %4a dira Nafarroan, %12a EAEn eta %15a Iparraldean. Euskaldunak eta lurraldeka aztertuz (ikus III. taula), euskaraz denek edo ia denek dakitenak %31a dira Iparraldean, %36a EAEn eta %42a Nafarroan.

Sekzioen tipologiari begiratzuz, eta biztanleria osoarekiko, joera gardena nabarmentzen da lankideen artean: sekzio euskaldunenetik behera joan ahala, (>%80, %45-79, %20-44, >%20), denek edo ia denek dakitenak ere halaber doaz: %61a, %29a, %12 eta %3a.

Euskaldunak bakarrik hartuta, (ikus III. taula), aipatutako joera hori garbi agertzen da: %61a, %33a, %29 eta %19a. Azken sailkapen honen arabera azpimarratzekoa da aurreneko bi sekzioen arteko jauzi bortitza.

Nahiz eta taula hauetan ez agertu, euskaldunen gaitasuna eta adina gurutzatuz, harreman sarearen baitan zenbat eta gazteago, gaitasuna are eta altuago agertzen da

III. Taula
Norberaren Hizkuntza-Harremanen Sarea 91ko urtea
(Euskal Herria)
(Euskaldunak)

	GUZT	LURRALDEA			SEKZIOEN TIPOLOGIA MULTZOKA			
		E.A.E	N A F A RROA	IPARR ALDEA	EUSKAL >%80	EUSKAL %45-79	EUSKAL %20-44	EUSKAL <%20
GUZT	100	100	100	100	100	100	100	100
ZENBATEK DAKI EUSKARAZ LANKIDEEN ARTEAN ?								
denek edo ia denek	36	36	42	31	61	33	29	19
erdiek baino gehiagok	15	16	15	14	13	19	13	13
erdiek	21	22	6	18	14	24	29	13
erdie baino gutxiagok	15	14	14	21	7	15	17	20
inork edo ia inork ez	14	12	23	16	5	9	12	34

orohar. (Euskaldunen artean, denek edo ia denek dakitenak %44a dira 25 urte azpitik, %37a 25-39 urte bitartean, %33a 35-49 urte bitartean eta %35a 50 urtetik gorakoen artean).

2.4. Hizkuntza erabilera lan giroa


2.4.1. Hizkuntzaren erabilera eremuka eta lurraldeka (ikus I. grafikoa)

Eremu desberdinen arteko oreka/desoreka adierazten du ondorengo grafikoa, euskaldunak kontuan hartuta.

EAEri dagokionez, etxean beti euskaraz edo euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dutenak %55a dira, lagunartean %44a, dendetako saltzaileekin %46a eta lankideekin %38a. Euskaraz gehiago egiten da saltzaileekin lagunartean baino.

Nafarroan, etxean euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dutenak %58a dira, lagunartean %53a, dendetako saltzaileekin %43a eta lankideekin %48a. Lankideekin saltzaileekin baino gehiago aritzen dira.

I. grafikoa



Iparraldean, etxean euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dutenak % 37a dira, lagunartean %32a, dendetako saltzaileekin %20a eta lankideekin %25a. Hemen ere lankideekin saltzaileekin baino gehiago egiten da, baina hau baino larriagoa da erabilera maila hain urria izatea

2.4.2. Hizkuntza erabilera lankideekin, gaitasuna eta adinaren arabera

IV. taula honetan, gaitasuna (denek/ia denek dakite-ez dakite denek/ia denek), adina eta erabilera gurutzatzen dira.

Denek edo ia denek dakitenean, beti euskaraz egiten dutenak gutxiago dira adin talderik gazteenetan: %73a (35-49 u.b.), %67a (25-34) eta %62a gazteenen artean (<25 u.).

Denek edo ia denek ez dakitenean, gazteenak dira beti erdaraz gehien egiten dutenak, %45a hain zuzen ere.

Datu hauek azpimarratzen dute harreman sarearen garrantzia, alde batetik, eta eskolan egindako ahaleginek beste eremuetan ez dutela segidarik oraingoz, bestetik.

IV. Taula
Hizkuntz Erabilera Lankideekin
(Euskal Herria)
(Euskaldunak) 91ko urtea

	DENEK (IA DENEK) DAKITE					EZ DAKITE DENEK (IA DENEK)				
	GUZT	ADINA				GUZT	ADINA			
		<25	25-34	35-49	>50		<25	25-34	35-49	>50
GUZT	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
NOLA HITZ EGITEN DUZU LANEKO ZURE LANKIDEEKIN?										
Beti euskaraz	69	62	67	73	72	1	4	1	1	1
Euskaraz erdaraz baino gehiago	13	25	12	8	17	10	12	9	8	13
Erdaraz euskaraz hainbat	9	13	9	8	7	33	25	27	37	35
Erdaraz euskaraz baino gehiago	5	0	8	4	3	21	14	21	24	18
Beti erdaraz	4		5	6	2	36	45	41	30	33

EUSKARAREN EGOERA LAN MUNDUAN: HURBILPENERAKO DATUAK

2.4.3. Hizkuntza erabilera lankideekin, gaitasuna eta lan esparruaren arabera (V. Taula).

Euskaldunen artean, eta denek edo ia denek dakitenean, beti euskaraz edo euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dutenak %89a dira industrian, %81a zerbitzuetan eta %75a administrazioan. Azpimarratzekoa da, administrazioan, euskaraz denek edo ia denek jakinik, %23ak beti erdaraz edo erdaraz euskaraz baino gehiago egiten duela.

V. Taula

Hizkuntz Erabilera Lankideekin
(Euskal Herria)
(Euskaldunak)

91ko urtea

	DENEK (IA DENEK) DAKITE					EZ DAKITE DENEK (IA DENEK)				
	GUZT	LAN-ESPARRUA				GUZT	LAN-ESPARRUA			
		BERE KONT.	INDU.	ZERB.	ADMI.		BERE KONT.	INDU.	ZERB.	ADMI.
GUZT	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
NOLA HITZ EGITEN DUZU LANEKO ZURE LANKIDEekin? Betieuskaraz	69	73	78	58	70	1	0	1	3	3
Euskaraz erdaraz baino gehiago	13	8	11	23	5	10	8	13	6	10
Erdaraz euskaraz hainbat	9	9	4	16	3	33	23	32	37	30
Erdaraz euskaraz baino gehiago	5	5	4	1	17	21	17	20	20	28
Beti erdaraz	4	5	3	3	6	36	52	34	34	29

Inguruan denek edo ia denek ez dakitenean, erabilera mailak oso bestelakoak dira, eta hiru sektoreetan dira nagusi erdaraz euskaraz baino gehiago egiten dutenak: %57a administrazioan eta %54a industria eta zerbitzuetan. Euskaraz egiteko aukerak nabarmenki desagertzen dira.

2.4.4. Lanean telefonoa hartzean nola erantzuten duzu?

Galdera honen aurrean baliteke inkestatuak gauza desberdinak ulertu izatea, baina hala ere adierazgarriak dira emaitzak: euskaldunak kontutan hartuta, beti euskaraz erantzuten dutenak %35a dira, eta beti erdaraz %40a. Aipatzekoa da Iparraldean beti euskaraz erantzuten dutenak %4a direla, eta beti erdaraz %51ak. (Ez daki/ ez du erantzuten, %33a).

2.5. Euskararen erabilera giro formalagoetan

Giro edo esparru formalagoetan, erabilera maila txikiak aurkitzen ditugu, hala udaletxeetako bulegoetan nola finantza zerbitzuetan (banku, aurrezki kutxa) nahiz osasun zerbitzuetan (mediku, erizain eta abar).

Udaletxeetako bulegoetan beti euskaraz edo euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dutenak %54a dira EAEan, Nafarroan %37a eta Iparraldean %20a. Beti erdaraz egiten dutenak %60ra heltzen dira Iparraldean.

Bankuko sukurtsaletako egoera makalagoa da oraindik, euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dutenak %51a izanik EAEan, %37a Nafarroan eta %9a Iparraldean.

Osasun zerbitzuetako erabilera aurreko biak baino askoz ere txikiagoa da, EAEan %24a, Nafarroan %26a eta Iparraldean %6a besterik ez. Hutsune nabaria dago azpisektore

VI. Taula

	GUZT	LURRALDEA		
		E.A.E	N A F A RROA	IPARR ALDEA
GUZT	100	100	100	100
NOLA HITZ EGITEN DUZU ZURE UDALETXEKO BULEGOETAN?				
Beti euskaraz	41	46	32	15
Euskaraz erdaraz baino gehiago	7	8	5	5
Erdaraz euskaraz hainbat	11	11	9	11
Erdaraz euskaraz baino gehiago	9	10	7	8
Beti erdaraz	32	26	47	60
NOLA HITZ EGITEN DUZU BANKUKO ZURE SUKURTSALLETAN?				
Beti euskaraz	37	43	31	6
Euskaraz erdaraz baino gehiago	7	8	6	3
Erdaraz euskaraz hainbat	12	12	6	16
Erdaraz euskaraz baino gehiago	6	5	5	6
Beti erdaraz	38	32	52	69
NOLA HITZ EGITEN DUZU OSASUN ZERBITZUETAKO BULEGOETAN?				
Beti euskaraz	18	20	24	5
Euskaraz erdaraz baino gehiago	4	4	2	1
Erdaraz euskaraz hainbat	9	11	3	6
Erdaraz euskaraz baino gehiago	9	10	7	8
Beti erdaraz	59	56	65	80

«Oso aldeko edo aldeko jarrera eta interes handia edo nahikoa dutenak %31 dira zerbitzuetan, %27a industrian eta %23a administrazioan. Aldiz, aurkako edo oso aurkako jarrera dutenak kontuan hartuta, %24a egiten dute industrian, %25a zerbitzuetan eta %37a administrazioan»

«Euskaldunen artean, orohar esan daiteke etxetik urrundu ahala euskara gutxiago egiten dela segida honen arabera: etxea, lagunartea eta langiroa, eta hau hiru lurraldeetan»

EUSKARAREN EGOERA LAN MUNDUAN: HURBILPENERAKO DATUAK

honetan.

Nahiz eta taula honetan agertu ez, adinaren ikuspegitik, adinean jaitsi ahala, jaitsi egiten da euskararen erabilera. (Salbuespen bakarra 16-24 urteko taldea da, udaletxe edo osasun zerbitzuetara doazenean).

2.6. Interes eta jarreraren araberako azterketa

VII. Taula
Interes eta Jarreraren Araberako Tipologia 91ko urtea
(Euskal Herria)

	GUZT	INTERES ETA JARREREN ARABERAKO TIPOLOGIA						
		Oso aldekoa interes handia	Aldekoa interes nahikoa	Aldekoa interes txikia	Ez alde ez aurka interes nahikoa	Ez alde ez aurka interes txikia	Aurkakoa	Oso aurkako
GUZT	100	10	19	18	8	22	18	6
LAN-ESPARRUA:								
EZ DU LANIK EGITEN	100	10	18	19	7	23	17	5
BERE KONTURA	100	12	16	18	5	21	20	9
INDUSTRIA	100	7	20	18	6	24	18	6
ZERBITZUAK	100	9	22	15	11	18	19	6
ADMINISTRAZIOA	100	10	13	11	16	13	26	11

VII. taulan agertzen den tipologia aztertuta, zera agertzen da:

Oso aldeko edo aldeko jarrera eta interes handia edo nahikoa dutenak %31 dira zerbitzuetan, %27a industrian eta %23a administrazioan. Aldiz, aurkako edo oso aurkako jarrera dutenak kontuan hartuta, %24a egiten dute industrian, %25a zerbitzuetan eta %37a administrazioan.

3. Laburtuz

Orrialde hauetan lan munduari buruzko aurreneko datu andana ematen da, gerora etorriko direlarik gurutzaketa berriak. Emandakoen artean zera azpimarratuko nuke oraingoz:

* Euskaldunen artean, orohar esan daiteke etxetik urrundu ahala euskara gutxiago egiten dela segida honen arabera: etxea, lagunartea eta langiroa, eta hau hiru lurraldeetan.

* Euskaldunen portzentaiarik altuenak agertzen diren eskualdeetan euskara sustatzeko eman dezake etekinik handiena, eta lan munduari dagokionez, eskualderik

euskaldunenek dute lehentasuna, %80tik gora eta %45-%79 bitartekoek. Giro hauetan lan inguru euskaldunak edo gehienbat euskaldunak sor daitezke (LWE, Linguistic Work Environment, Bourhis 1994, argitaratzeke).

Ettxegiro/auzoinguru eta eskolan egindako ahaleginekin lotuz eragin biderkatzailea lor daiteke aipatu eskualdeetan.

* Sektoreka hartuz, zerbitzu sektoreak baldintzarik egokienak ditu gerora begira, lehentasuna sektore honek hartu behar lukeelarik. Industria sektoreak garrantzia du oraindik eskualde hauetan, eta administrazioari dagokionez esan genezake lan luzea datorrela epealdi luze samarrean.

* Gaurko eta datozen belaunaldiei so eginez, gazte elebidun gehiago izango ditugu eskola bidez, baina adierazle hauen arabera ez dirudi euskara luze-zabal erabiltzeko aukera larregirik izango dutenik, lanean euskaraz aritzeari dagokionez behintzat. Hala balitz, ez legoke txarto geure buruari galde-tzea jaso dugun balio etnokultural eta etnolinguistikoe-kin ze gizarte eredu ari garen transmititzen gure ondorengoei.

Lizardi zenak ederto gogorarazi zigun:

“..., hizkuntza larreakoa,
nahi aumat ere noranaikoa:
jakite-egoek igoa;
soña zar, berri gogoa,
azal orizta, *muin betirakoa*” (X. Lizardi)

Josean Urdangarin
Eusko Jaurlaritzako
Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia

*Department fo linguistic planning and policy of the
Basque Government*

*«Euskaldunen
portzentaiarik
altuenak agertzen
diren eskualdeetan
euskara sustatzeak
eman dezake etekinik
handiena, eta lan
munduari dagokio-
nez, eskualderik
euskaldunenek dute
lehentasuna, %80tik
gora eta %45-%79
bitartekoek»*